

## **Gueñesko Udalak Internet bidez herritarren partaidetza sustatzeko proiektua aurkeztuko du eCitizen europar topaketan**

- **Kerryn egingo da topaketa (Irlanda), maiatzaren 28tik 31ra**
- **eCitizen foroaren xedea da administrazio elektronikoaren arloko eta herritarren eta administrazio publikoen elkarreraginaren arloko esperientzia eta jardunbide egokien trukea bideratzea, Europan**
- **Gueñesko Udalak, EUDELen babesarekin, herritarren partaidetzarako web atari berria aurkeztuko du; inkestak, enplegu eskaintzak, iradokizunen postontzia eta herritarren galderei erantzuteko foroa dira atari horren atal nagusiak.**

**Bilbon, 2012ko maiatzaren 23an.** Gueñesko Udalak, EUDELen babesarekin, e-partaidetzako proiektua aurkeztuko du eCitizen europar topaketan, maiatzaren 28tik 31ra bitartean Kerryn (Irlanda) egingo den bilkuran.

Izan ere, Europa mailako trukerako foro horretako kide aktiboa da Euskadiko Udalen Elkarte, eta Gueñesko Udalaren [www.guenes.info](http://www.guenes.info) web atari berria aukeratu du e-partaidetzaren arloko jardunbide egokien eredu gisa. Hala, Kerryn izango da Bizkaiko udalerrri horretako ordezkaritza bat, Herritarrekiko Harremanetarako zinegotzi Martín Pérez-Garmendia buru duela, proiektua sustatu duen udal arloaren arduraduna den heinean.

Gueñesko proiektuaren giltzarria udal informazio guztia bilduko duen web ataria da, eta Internet bidez herritarren partaidetza sustatzeko xedez sortu zuten.

Webgune berria, [www.guenes.info](http://www.guenes.info), 2011. urte amaieran jarri zuten abian, eta udalerriko informazio adierazgarri guztiaren biltegi dinamiko gisa dihardu harrezkero.

Webgune berriaren indargune nagusiak hauek dira: iritzi atala, foroa eta herritarren partaidetza inkestak bidez eta inkestei erantzuten dieten herritarrentzako zozketen bidez sustatzea. Gainera, **punta-puntako tresna da, partaidetzari loturiko alderdi guztiei dagokienez, hala nola, gizarte sareak, web2.0, multimedia, etab.**

Atariaren bidez, halaber, udal instalazioen **on line erreserba** egin daiteke, eta horrek, noski, erosotasuna eta denbora aurrezteko aukera ematen die erabiltzaileei.

Webgunea partaidetzari begira antolatuta dago, eta aktiboa da; era berean, ezaugarri horiei indar berezia ematen diete proposamenak biltzeko atalek eta **matxura, gorabehera eta kalteen berri emateko postontziak**, arazo horiek bizkorrago eta hobeto konpontzeko helburuz sortuak. Bestalde, atariaren bidez, herritarrek udal proiektuak ezagutu ditzakete, inkestei erantzun diezaiekete, eta baita **foroan** parte hartu ere, non herritarrek egindako galderei erantzuten baitiete udal arlo bakoitzeko arduradunek.

Webgune berriak ekarritako hobekuntza aipagarria da, halaber, **udaleko enplegu eskaintzen** gunea. Zerbitzu horrekin, udalerriko lan-poltsetara sartzeko bidea erraztu nahi zaie ahalik eta herritar gehienei.

### **eCitizen europar foroa**

eCitizen foroaren xedea da administrazio elektronikoaren arloko eta herritarren eta administrazio publikoen elkarreaginaren arloko esperientzia eta jardunbide egokien trukea bideratzea, European.

Foroa 2012ko otsailean hasi zen lanean, eta 2012aren bukaeran amaituko du bere jarduna; bitarte horretan, askotariko kideak bilduko ditu, hala nola, EUDELen moduko udalerrri elkarteak; hiriak, adibidez, Tampere (Finlandia), Tartu (Estonia) eta Patras (Grezia); udalerrriak, esaterako, Odense (Danimarka), Bolonia (Italia) eta Miskolc (Hungaria); eta hainbat eskualde eta konderri, Flevoland (Holanda), Kerry (Irlanda) eta Vysocina (Txekiar Errepublika), besteak beste.

Herritarrek tokiko erabakietan parte har dezaten sustatu nahi du foroak, baita administrazio arloko teknologia berrien garapenean lagundu ere.

Ildo horretatik, erakunde parte-hartzaileen arteko zuzeneko lankidetza hobetzeko bilgunea da eCitizen, elkarrekiko ikaskuntzan, esperientzien trukean eta e-gobernurako eta e-partaidetzarako tresnen eta ezagutzen transferentzian oinarritua.